

ATARIKO PROBA

3.HE

4. eredua

- 1.- Hurrengo hitz zerrenda batean ortografia akats bat dago. Zeinetan?
 - a) Etorkizuna, ezkutitza, zaborra.
 - b) Hartu, horma, hurbil.
 - c) Iradokizun, isun, xede.
 - d) Ahate, izurde, marrazo.

- 2.- Zein da ZUZENA?
 - a) Elkarrengan ulertzea arazo larria da atzerrira oporretan goazenean.
 - b) Aurkitutako geneek elkarri zer lotura duten ikertzen ari dira ikerlariak.
 - c) XXI. mendeko gizartearen elkarrekiko begirunean oinarritu behar da.
 - d) Munduko herrialde boteretsuenetako agintariak elkar bildu ziren Erroman.

- 3.- — *Egin al duzu errenta aitortpena?*
—

 - a) Hori da hori egitea!
 - b) Egin ez du ba!
 - c) Beharko!
 - d) Gaitzerdi!

- 4.- Sinonimo bikote hauetatik zein dago ONDO?
 - a) Metatu-pilatu.
 - b) Mesedegarri-aipagarri.
 - c) Sakabanatu-eztabaidatu.
 - d) Onuragarri-interesgarri.

- 5.- *Langile bati zereginik ez ematea*
 - a) langile askori eragiten die *mobbing* deritzonak.
 - b) *mobbing* deritzogunaren ezaugarrietako bat izan ohi da.
 - c) enpresan baztertu eta handik botatzen ahaleginduko da nagusia.
 - d) nagusiak azkenean langilea lanetik kanporatzea lortuko du.

- 6.- *Hori da hori umorea, beti inoren barre egiteko prest!*
 - a) gainean
 - b) barrenetik
 - c) buruz
 - d) lepotik

- 7.- *Ehiza teknikak eta elikagaiak batzeko moduak zituzten antzinako gizakiek.*
- a) ekoitzi
 - b) eraldatu
 - c) iruditu
 - d) baldintzatu
- 8.- *Hamar langiletik beherako enpresek daukate eskarmentu gutxien Internetekin zerikusia duten arloetan. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?*
- a) Hamar langile baino gutxiagoko enpresek dutela zigorrik gehien.
 - b) Hamar langile baino gehiago behar direla eskarmentua edukitzeko.
 - c) Hamar langile baino gutxiago izanez gero, eskarmentua txikiago izango dela.
 - d) Hamar langile baino gehiago dituzten enpresek dutela esperientzia gehien.
- 9.- Zein da ZUZENA?
- a) laz izandako istripuak gauza askotan pentsarazi nau.
 - b) Gurasoek larunbatero garbiarazten didate logela.
 - c) Antzinako umeak kolpeka isilarazten zieten eskolan.
 - d) Errenta aitortpena ez dugula egin behar jakinarazi gaituzte.
- 10.- Zein da benetako atsotitza?
- a) Zor zaharra, zor txarra.
 - b) Zakur zaunkalaria, alferra.
 - c) Ibiltari gauean, gosaria goizean.
 - d) Hontzari, bere kumeak kosk egin.
- 11.- *EHUK eta Eusko Jaurlaritzak itun garrantzitsua dute unibertsitatea finantzatzeko.*
- a) hitzartu
 - b) bildu
 - c) hedatu
 - d) erabaki
- 12.-, *oraindik ez dago zertan kezkatu hazkuntza ekonomikoa egokia da eta.*
- a) Defizit publikoa kontrolatzeko neurriak ezinbestekoak dira
 - b) Erregai izugarri garestitu bada ere
 - c) Enplegua sortzeko politiken bitartez
 - d) Gizarte eredu aldutzen bada

- 13.- *Hizlariak gure kulturaren ikuspuntu sozio-antropologikoa du.*
- a) berba egingo
 - b) jorratuko
 - c) barreiatuko
 - d) adostuko
- 14.- *Aurretik abiatutako hausnarketa-prozesuaren emaitzak jaso eta etorkizunerako baliagarri bihurtzeko asmoz, bertsolari elkartekoek batzarra egingo dute. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*
- a) Aurretiko hausnarketak bildu eta etorkizunerako balio dezaten, bertsolari elkartekoak batzartu egingo dira.
 - b) Lehenagotik abiatutako hausnarketak etorkizunean baliagarri izango direnez jakiteko asmoz, bertsolari elkartekoek batzarra egingo dute.
 - c) Bertsolari elkartekoek bilera egingo dute hausnarketa prozesua abian jartzeko eta etorkizunari begira baliagarri bihurtzeko asmoz.
 - d) Bertsolari elkartekoek bilera egingo dute prozesua abiatzeko eta emaitzak jasotzeko asmoz.
- 15.- Zein da ZUZENA?
- a) Erreportajeari buruzko zuen iritzia ezagutzeko gustatuko litzaidake.
 - b) Nire semeak hartu du ohitura zerbait nahi duenean negar egitea.
 - c) Datorren astean ezin izango dut ikastarora etortzea.
 - d) Ez nuen espero eguraldi honekin zu mendira etortzerik.
- 16.- *Bidea egiten dela esaten zigun beti aitonak.*
- a) ekinaren ekinez
 - b) txitean-pitean
 - c) orpoz orpo
 - d) hitzetik hortzera
- 17.- *Filma gustatuko zaizuela ziurta, baina besteren bati ere galdetu, gustatzen ez bazaizue larrutu ez*
- a) dezaket / diezazueten.
 - b) daiteke / diezadazuen.
 - c) dezakezue / zaitzaten.
 - d) diezazueket / nazazuen.

- 18.- *Ingurumenari begira, egokia litzateke erabili eta botatzeko produktuak gutxien erabiltzea.*
- a) harik
 - b) orduan eta
 - c) zenbat eta
 - d) al bait
- 19.- Zein da ZUZENA?
- a) Ez dakigu horrek arazoa konponduko du edo ez, baina lagunduko du.
 - b) Batek daki zenbat kostatzen da gau bat hotel horretan.
 - c) Argi eta garbi esango dizut: kontuz nori esaten diozun kontatu dizudana.
 - d) Itxaroten nago, baina oraindik ez didazu esan zer pentsatzen duzu.
- 20.- *Ekonomiaren hazkundera %3,2koa izango dela dute ekonomialariek.*
- a) aurreikusi
 - b) mailegatu
 - c) bilakatu
 - d) erdietsi
- 21.- *Mutil apal eta esanekoa zen.*
Zer esan nahi du azpimarratutakoak?
- a) Ederki hitz egiten zuela.
 - b) Esatekoak behar den moduan esaten zituela.
 - c) Behin eta berriz esaten zituela gauzak.
 - d) Agindutakoa betetzen zuela.
- 22.- *Dirua izaten da gehienetan adinekoen aurkako tratu txarren sorburu;, seme-alabek gurasoekiko duten mendekotasun ekonomikoa.*
- a) hala nola
 - b) berriz
 - c) alegia
 - d) edonola ere
- 23.- *Aurtengo aurrekontuarekin, euro, ez dut uste estutasunik pasatuko dugunik.*
- a) berrehun hirurogei eta hamabi mila eta bostehun
 - b) berrehun eta hirurogeita hamabi mila eta bostehun
 - c) berrehun eta hirurogei eta hamabi mila eta bostehun
 - d) berrehun eta hirurogeita hamabi mila bostehun

- 24.- *Poesia liburu hori oso arina da, olerki guztiak irakurtzeko modukoa.*
- a) errenkadan
 - b) boladan
 - c) denboran
 - d) atalean
- 25.- *AEBko politikariek hautesle asko etxean geratuko beldur dira.*
- a) dira
 - b) direnaren
 - c) diren
 - d) direla
- 26.- *Interesdunek argazki bana ekarri behar dute, erabiltzaile txartela egin*
- a) dakien.
 - b) dezakete.
 - c) dakigun.
 - d) ditzakete.
- 27.- *Zenbait tokitan euskararen galera larria da; batzuek ukatu egiten dute, baina ez da sumatzen egoerak hobera egingo duenik.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?
- a) Zenbait tokitan euskara egoera larrian dago, eta batzuek ezetz esaten badute ere, ez dirudi egoera hobetu denik.
 - b) Euskararen egoera zenbait tokitan larria bada ere, batzuek egoera hobetu daitekeela sumatzen dute.
 - c) Zenbait tokitan euskararen egoera hobetuko dela sumatzen delako, batzuek galera dagoela ere ukatu egiten dute.
 - d) Euskararen egoera larria da zenbait lekutan, horregatik egoerak hoberantz baino ezin du egin.
- 28.- *Nola esaten zaio ekintzaren bat (normalean jendaurrean edo agerian) txartzat edo zigorgarritzat hartzeari?*
- a) Ezeztatu.
 - b) Gaitzetsi.
 - c) Zirikatu.
 - d) Erantsi.

29.- Zein da ZUZENA?

- a) Abenduak 18an gure saileko lankideok urteroko afaria egingo dugu.
- b) Montxo Armendarizen azken filma gaur zortzi, irailak 10a, estreinatuko dute.
- c) Hemendik astebetara, urriko 5ean, lehen azterketa izango dugu.
- d) Ainhoa Artetak kontzertua eskainiko du etzi, abenduak 5, Zallan.

30.- Zein da ZUZENA?

- a) Itxura guztien arabera, aireportua handituko dutela.
- b) Baliteke aitona Gabonetan ospitaletik etxera etortzea.
- c) Litekeena da aurten udako oporrik izango ez dudala.
- d) Uste dut euria egingo du, baina eguraldi kontuekin ez da inoiz jakiten.

31.- *Urakana dela eta agintariak premiazko laguntza eskatu dute.*
Zer esan nahi du azpimarratutakoak?

- a) Sari bidezko laguntza eskatu dutela.
- b) Laguntza eskatzea berezkoa dela.
- c) Ezinbesteko laguntza eskatu dutela.
- d) Eskatu duten laguntza bidezkoa dela.

32.- *Elurra tarteko, arretaz gidatzeko aholkatu dute trafiko arduradunek.*
Zein da azpimarratutakoaren BALIOKIDEA?

- a) Elurra bitartean dagoela.
- b) Elurra erdian dagoela.
- c) Elurra dela bitartekoa.
- d) Elurra dagoela eta.

33.- *energetikoa lortzea da unibertsitateko ikerketa horren helburua.*

- a) Eraginkortasun
- b) Adierazgarri
- c) Adierazkortasun
- d) Erakargarri

34.-, *baina Europa ekialdeko herrialdeetan eta Asia erdialdean ari da bizkorren zabaltzen gaitza.*

- a) Afrikari egin dio minik handiena hiesak
- b) 1,4 milioi pertsona bizi dira hiesak jota Europan
- c) Minuturo gutxienez ume bat kutsatzen da GIB birusaz Asian
- d) GIB birusa duten umeen %95ek ez du inongo tratamendurik jasotzen

- 35.- *Egaña faborito, bihar hasiko da Euskal Herriko bertsolari txapelketa.*
- a) izatekotan
 - b) bada
 - c) izateko
 - d) dela
- 36.- *Ez berandutu, bilera egingo dugu eta!*
- a) zortzietan zortziak
 - b) bederatzi inguruan
 - c) zazpiak batean
 - d) sei-seietan
- 37.- *gabiltza, baina biharko bukatuko dugu.*
- a) Bertatik bertara
 - b) Estu eta larri
 - c) Zotz edo motz
 - d) Hitzez hitz
- 38.- *Sinadura digitalak eskuz idatzitako sinadurari ematen zaion erabilera berbera du,, balio juridiko bera du.*
- a) adibidez
 - b) hots
 - c) hala ere
 - d) aitzitik
- 39.- — *Zer berri dugu gaur komunikabideetan, bada?*
— *Irratian entzun dudanez, jaiegunetan ere dendak ireki nahi dituzte.*
—
- a) Horixe ba, irekitzea ere!
 - b) Hori izan da irekitzea, hori!
 - c) Besterik ez genuen behar!
 - d) Bai zera, hori egia da!
- 40.- *Gaur eguneko gazte jendeari falta zaio, batez ere, lan esparruan.*
- a) ezberdintasuna
 - b) ikusmena
 - c) egonkortasuna
 - d) adierazpena

- 41.- *Bazkideek elkarteko presidente gisa berretsi dute.*
Zer esan nahi du esaldi horrek?
- a) Bazkideek berriz ere etsi egin dutela presidentearen aurrean.
 - b) Berriz ere presidente legez jokatu dutela bazkideek.
 - c) Bazkideek elkarteko presidente legez baieztatu dutela.
 - d) Elkarteko presidente legez, berriz ere bazkideek berretsi dituela.
- 42.- *Jatorduak haurren eta irakasleen arteko gatazka-une bilakatu dira.*
- a) al
 - b) hein
 - c) omen
 - d) ote
- 43.- *Mundu osoko fededunek egin dituzte Aita Santuaren alde otoitz egiteko.*
- a) elkartasunak
 - b) elkarretaratzeak
 - c) elkarrizketak
 - d) elkargoak
- 44.- *Besterik aukeratu, adostuta genuen menua zerbitzatuko digute.*
- a) ahala
 - b) bezala
 - c) ezean
 - d) izan ezik
- 45.- *Etxea zaharberritu genuenean, zure aldean lan handia egin nuen.*
Zer esan nahi du esaldi horrek?
- a) Etxea zaharberritzearen alde lan handia egin nuela.
 - b) Nik zure ondoan egin nuela lan etxea zaharberritzen.
 - c) Nik zuk baino lan gehiago egin nuela etxea zaharberritzen.
 - d) Lan handia egin genuela etxebizitzaren alde.

ORDEZKO GALDERAK

46.- *Egokien erabakia hartzeko esan zioten gurasoek.*

- a) zegokion
- b) zeritzon
- c) ziharden
- d) zekarren

47.- — *Ordenagailuarekin nahikoa ez, eta inprimagailua ere izorratu digu teknikariak!*
—

- a) Hori ere ba al dugu!
- b) Atsekabeen lagun!
- c) Izorratzea daukala!
- d) Falta zitzaigula!

48.- *Abenturazaleek atzo zioten bidaiari.*

- a) eutsi
- b) abiatu
- c) jardun
- d) ekin

ATARIKO PROBA - 3.HE

4. eredua

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	A	2.	C	3.	C	4.	A	5.	B
6.	D	7.	B	8.	D	9.	B	10.	A
11.	A	12.	B	13.	B	14.	A	15.	D
16.	A	17.	D	18.	D	19.	C	20.	A
21.	D	22.	C	23.	B	24.	A	25.	C
26.	A	27.	A	28.	B	29.	D	30.	B
31.	C	32.	D	33.	A	34.	A	35.	D
36.	D	37.	B	38.	B	39.	C	40.	C
41.	C	42.	C	43.	B	44.	C	45.	C

ORDEZKO GALDERAK

46	B	47	A	48	D
----	----------	----	----------	----	----------